

KOSTUAK

Gure aplikazioa martxan jartzeko eta epe luzera mantentzeko, beharrezkoa da kostu nagusiak ondo identifikatzea, eta horiek nola kudeatuko ditugun zehaztea. Proiektu digitalean, gestio ekonomikoak funtsezkoak dira, eta gure gastuak **bi multzotan** sailkatuko ditugu: hasierako gastuak eta mantentze gastuak.

Hasteko, aplikazioaren **diseinua** eta **programazioa** sortu behar da, eta horrek gastuak dakartza. Gainera, aplikazioa ez da soilik sortzea, etengabe **eguneratu** behar da, erroreak konpondu, diseinuak hobetu, eta behar bada, funtzio berriak gehitu. Beraz, **mantentze teknikoa** ere gastu finko eta jarraitua izango da. Beharrezkoa da aplikazioaren datuak modu **seguruan** gordetzea. Horretarako, hodeiko zerbitzuak erabiliko ditugu, eta horiek, hileroko edo urtero ordaindu beharko kostu finkoa izango da. Zerbitzu hauek garantizatuko dute erabiltzaileen apunteak ez direla galduko eta plataforma egonkorra izango dela. Horrez gain, gure aplikazioak ikasleen **informazioa gordetzen** duenez, ezinbestekoa izango da datuak ondo gordeta egotea, pasahitz seguruak eskainiz eta sistema bereziak edukitzea hackerrak sahisteko. Guzti honek ere kostu bat izango du.

Marketing eta komunikazio gastuak ere egingo ditugu. Aplikazioa ikasleen artean ezaguna izan dadin, sare sozialetan iragarkiak, bideo laburrak, ikasgeletan aurkezpenak, kartelak, kanpainak... egin beharko ditugu. Hasieran gastua handia izango da, baina erabiltzaileak erakartzea ezinbestekoa izango da

Gainera, **diseinadore grafikoaren** gastuak daude: logoa, aplikazioaren diseinua, estilo bisuala eta erabiltzailearen esperientzia hobetzeko material guztia orokorrean. Honek bezeroak aplikazioan eroso sentitzea eta gustura nabigatzea errazten du.

Azkenik, badaude **administrazio gastuak** ere: aplikazioa Google-Play edo App Store-n argitaratzeko tasak, legezko ziurtagiriak, eta proiektuaren eguneroko kudeaketan sortzen diren gastu txikiak ere.

GERO EGONGO EZ DIREN HASIERAKO KOSTUAK	
Merkataritza-erregistroa	100-200 €
Notarioa	300-500 €
Teknikoa	500-600 €
KOSTU FINKOAK	
BEZ -a	%21
Mantenimendua	2€ jaisten duen pertsonako hilabetea
Soldatak	€x4
KOSTU ALDAKORRA	
Itzultzailea	0.08€ / hizkiko
Diseinatzailea	60€ / horduko
Co-working	150€



Esku bat kalkulagailu batekin paper baten kontuekin kalkulatuz eta atzealde gorri batekin.

Argazkia-hemendik: <https://www.xatakamovil.com/aplicaciones/como-controlar-todos-gastos-movil-herramientas-favoritas-editores>